



Hezkuntza Soziolinguistikoa: esperientzien partekatzea eta aurrera begirakoa

Hezkuntza Soziolinguistikoa eta nerabeak: Ikastolen Elkartetik begirada


Inma Muñoa Barredo (Ikastolen Elkarte)

Hezkuntza soziolinguistikoa: esperientzien partekatzea eta aurrera begirakoa

- Zertarako?
- Zer?
- Nola?



PERTSONA EREDUA: 5 bereizgarri, 18 ezaugarri



BALIABIDEAK

- Curriculum soziolinguistikoa eta ekolinguistikoa.
 - Soziolinguistikoa: hizkuntza eta gizartearen arteko harremanean gertatzen diren fenomenoak ulertzeko.
 - Ekolinguistikoa: hizkuntzen arteko elkarbizitza orekatu baterako baldintzak planteatzeko.
 - XXI. mendean euskaldun izateko arrazoiak ulertu eta hautua egiteko.
- Mintzoaren adierazkortasuna edo ahalmen espresiboa.
- Euskal kulturgintza modu sortzailean bizitzeko baliabideak.

EKINTZARA BIDERATUTAKO IKUSPEGIA

Ikasleak gizatalde batean jarduten du (**eragile aktiboa** da) ikasgela barruan edo kanpoan (bien arteko mugak gero eta lausoagoak dira).



Edozein kontzeptuk edo ezagutzak **testuinguratutako ekintza baten barruan** hartzen du zentzua.



Edozein kontzeptu edo ezagutza testuinguratutako ekintza baten barruan eraikitzen da **elkarreraginean**.



Ekintzan garatzen dira konpetentziak, eta **ekintzaren bidez** egiaztatzen da konpetentzia



Ikasleek sortutako dokumentuak eta produktuak **benetakoak** dira, azken helbururako balio dute, konbentzioak eta generoak errespetatzen dituzte eta ekintzen azken emaitza dira, eguneroko bizitzako proiektuetan gertatzen den bezala.



EREMU FORMALEAN ETA EZ-FORMALEAN

HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOA: **familiak eta irakasleak**

EREMU FORMALA: eki proiektua (DBH)

Unitatea, arloa eta maila	Azken produktua
Las lenguas y sus hablantes (Lengua y Literatura, DBH 1)	<ul style="list-style-type: none">• Ikerketa-txostena.• Ikaskideei ahozko azalpena: ikerketaren ondorioak eta ikerketan zehar izandako bizipenak.
Jalgi hadi plazara! (Euskara eta Literatura, DBH 2)	<ul style="list-style-type: none">• Ingurune hurbilean euskararen alde lanean aritutako eragileen inguruko erreportaje-bilduma.• Erreportaje-bildumaren aurkezpen-bideoa.
Euskararen lekukoak (Euskara eta Literatura, DBH 3)	<ul style="list-style-type: none">• Ikerketa soziolinguistikoa: txostena.• Ikerketen ondorioetan oinarrituz, ikastetxeko Euskara Batzordeari proposamenak egitea.
Mal de lenguas: los prejuicios lingüísticos (Lengua y Literatura, DBH 4)	<ul style="list-style-type: none">• Aurreiritzi linguistiko jakin bati aurre egiteko iritzi gutuna.

EREMU FORMALA: eki proiektua (DBH)

Unitatea, arloa eta maila	Ezagutza soziolinguistikoak
Las lenguas y sus hablantes (Lengua y Literatura DBH 1)	Hizkuntza-familiak; Hizkuntzen estatusa, hizkuntza ofiziala, hizkuntzen erabilera eremuak; Lehen hizkuntza; hiztun elebakarrak, elebidunak, eleaniztunak ...
Jalgi hadi plazara! (Euskara eta Literatura DBH 2)	Hizkuntza-komunitatea; Hizkuntza-ordezkapena; hizkuntza-eskubideak; hizkuntzen normalizazioa; Euskararen normalizaziorako legea; Aurreiritzi linguistikoak; Hizkuntza maioritarioak, minoritarioak eta minorizatuak; Euskalgintza: erakundeak eta egitasmoak ...
Euskararen lekukoak (Euskara eta Literatura DBH 3)	Hizkuntzen bizitasun-maila; Hizkuntza-transmisioa; Hiztun-komunitatea; hiztun-kopuru absolutuak; erabiltzaile aktiboak ; Hizkuntza ofiziala; Hizkuntza-normalizazioa; Hizkuntza-ukipena; diglosia; elebitasuna; Ikerketa soziolinguistikoak: ikerketarako urratsak eta teknikak ...
Mal de lenguas: los prejuicios lingüísticos (Lengua y Literatura DBH 4)	Aurreiritzi linguistiko ohikoenak: Hizkuntza errazak / zailak ...; Hizkuntza-familiak; Hizkuntza gutxitua; Hizkuntza ofiziala: Hizkuntzaren aldaera estandarra; Irakaskuntza-hizkuntza; Elebakartasuna ...

EREMU FORMALA: erronkak (Batxilergoa)

Unitatea, arloa eta maila	Ezagutza soziolinguistikoak
Euskararen herria ehuntzen (Euskara eta Literatura, Batxilergoa)	<ul style="list-style-type: none">• Eleaniztasuna, elebakartasuna. hizkuntza-erregistroa, hizkuntza-aurreiritzia, dialektoa, hizkuntza-ekologia, hizkuntza gutxitua, hizkuntza-eskubideak, diglosia, hizkuntza-gatazka, hizkuntza-aniztasuna, hizkuntza-ukipena, hizkuntza-komunitatea, hizkuntza-politika, hizkuntza ofiziala, eta soziolektoa.• Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna• Euskaltzaindia, Elhuyar fundazioa, Topagunea, euskarazko hedabideak, Durangoko Azoka ...
Azken produktua: ikerketa eta ekintzarako proposamenak	
Ikastetxeko hizkuntzen mapa, ikastetxearen hizkuntza-politika, euskararen historia soziala herri-mailan, gazteen hizkuntza-beharrak, aldarrikapenak eta hizkuntzak, XXI. mendeko arteak.	

BALORAZIOAK: Lengua y Literatura

Ikasleak euren **ingurune hurbilari** begira jartzen ditu eta inguru hurbil horretan hizkuntza eta kultura asko daudela konturatzen dira. Jabetze hori ez da teorikoa bakarrik, azken txostena osatzeko beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten pertsonak elkarrizketatu behar dituztenez, **bizipen errealak** biltzen dituzte -positiboak eta ez hain positiboak- eta horrek hizkuntza aniztasunarekiko eta etorri berriekiko **sentsibilizazioa** eragiten die. Are gehiago, kanpotik etorritako hainbat ikasle euren **jatorrizko herrialdean dagoen hizkuntza aniztasunaz** jabetzen hasten dira.

Azken urteetan nabari da ikasleek hainbat aurreiritzi linguistiko identifikatuta dituztela, adibidez, jakin badakite ez dagoela hizkuntza zailik edo errazik, baina hori arrazoitzeko **argudioak falta** zaizkie. Kasu horietan unitatean zehar argudio edo arrazoi horiek barneratzen dituzte eta horiei aurre egiteko ziurtasuna garatzen dute. Identifikatu gabe dituzten aurreiritzien kasuan, **“begiak irekitzen”** laguntzen die, bai eta aurreiritzi horiei **aurre egiten”**.

BALORAZIOAK: Euskara eta Literatura

Ikasleek informazio asko bildu zuten -biografia osatzeko **beharrezkoa zena baino askoz gehiago**- eta horrekin guztiarekin **ikus-entzunezko** bat sortu genuen. Erakusketaren irekiera hunkigarria izan zen: ikasleek euren lana **“benetako”** erakusketa batean ikusi zuten, Carmen Albisuren familiak egindakoaren **aitortza** jaso zuen ... Egindako lanketan zehar ikasleek **Erriberako euskalgintza eta euskara jendea ezagutu** zuten. Gainera, Carmen Albisu izan zen Argia **ikastolaren sortzailetako** bat!”. (Jalgi hadi! unitatea baliatuz, “Hemen baditun hamalau!” erakusketa ibiltarirako ekarpena prestatu)

“Euskararen lekukoak”, balorazioan aipatutakoak:

- Ikerketaren landa-lanak ikasleen artean sortu zuen **motibazioa**.
- Euskarak Villabonan duen egoera aztertuz, **egoera erreala ezagutu** ez ezik, ikasleek **“zentzua”** eman zieten landutako eduki soziolinguistikoei.
- Ikasleen **ahalduntzea** gizarte eragile gisa: “herriari eta gizarteari ekarpen egokiak eta txukunak egiteko gai direla sentitu dute, eta entzun egin zaie”.

Egindako lana baloratzeko garaian, irakasleek nabarmendu egin zuten ikasleek **herria hobeto ezagutzeko** aukera izan zutela, hau da, **Andoainen euskarak egin duen ibilbidea** ezagutzeko aukera izan zutela.

EREMU EZ-FORMALA


Programa	Ezagutza soziolinguistikoak	Metodologia
Pulunpa! (DBH 1)	<ul style="list-style-type: none">• Autobiografia linguistikoak• Ikastolen mugimendua• Euskara Euskal Herrian• Euskara eta komunitatea: herri mugimenduak• Euskararen eguna• Euskaraz natural (jarioa, erregistro ez formala)• ...	<ul style="list-style-type: none">• Jolasak eta dinamikak (ikasi, hausnartu, adierazi ...)• Saio bakoitzaren amaieran: balorazioa.• Ekintzen antolaketa: Euskararen eguna, Pulunpa! Akelarrea ...

Arikala proiektua

Pulunpa eta Xin! Harrera programa

HELDUAK: FAMILIA ETA IRAKASLEAK

Haurrak eta gazteak euskaldun haztearen atzean gurasoen hizkuntza-atxikimendu eta balioak egon ohi dira, jarrerak eta jokamoldeak, isilean adostutakoak nahiz berariaz erabakitakoak.



LABURBILDUZ

1. Iparra zehaztu eta adostu.
2. Iparrari erantzungo dion curriculum soziolinguistikoa eta ekolinguistikoa landu.
 - a. Ekintzara bideratutako metodologiak baliatuz eta ustiatuz.
 - b. Eremu formalean eta ez-formalean eraginez.
 - c. Hezkuntza komunitate osoan eraginez: irakasleak eta familiak.
 - d. Ebaluazioa / Ikerketa sistematizatuz.

ITURRIAK

- ANTERO, Amaia, Amaia ARTOLAZABAL, Esther GARAIALDE eta Zigor IBARZABAL. 2023. *Bazatuz? Ikastolen hezkuntza Marko Orokorra*. Donostia: Ikastolen Elkarte, 2023.
- Eki Proiektua. www.ikaselkar.eus
- GUIRADO, Odei eta Unai ARELLANO. *Pulunpa!*. Donostia: Ikastolen Elkarte. Barne dokumentua.
- GUIRADO, Odei, Aritz BEREZIARTUA, eta Idurre ALONSO. 2023. Arikala: 2022-23 ikasturteko ikerketa-txostena. Ikastolen Elkarte, HUEZI, Euskatzaindia (argitaratu gabea).
- GUIRADO, Odei, eta Jone RUA. 2023. "Pulunpa (e)ta Xin! Erdal jatorria duten ikasleentzako harrera- eta murgiltze-plana. Esku-hartze pedagogikoaren ekintza-ikerketa". *Euskera ikerketa aldizkaria*, 68(2), 41-86. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i68.265>
- IKASTOLEN ELKARTEA eta EUSKALTZAINDIA. Euskararen Herria Ehuntzen. <https://euskararenherriaehuntzen.euskaltzaindia.eus/>
- KASARES, Paula. 2017. "Euskararen transmisioa: berrikuspena hizkuntza-sozializazioaren paradigmantik". In *Euskararen Biziberritzea: Marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*, -(e)k argitaratua Jone Goirigolzarri, Xabier Landabidea, eta Ibon Manterola, 27-51. Bilbo: UEU.
- MUÑOIA, Inma; Ainhoa BEOLA eta Xabier LASA. 2024. "Hezkuntzan Soziolinguistika lantzen: zenbait gako eta esperientzia". *BAT soziolinguistika aldizkaria*. Argitaratze bidean.

*Hezkuntza soziolinguistikoa:
esperientzien partekatzea eta aurrera begirakoa*

Eskerrik asko!

Inma Muñoa Barredo

imunoa@ehi.ikastola.eus